

Txaranga Batzordea, Jaien mamina

Urtero bezala, jaietan, gazteak benetako protagonista bihurtzen dira, herrian gaur egun dauden 60 txaranga direla medio. Orain dela bi urte sortutako

Txaranga Batzordeak finkatu ditu bere helburuak jaien aurrean: «urtez urte jaiak hobetuz eta hutsunerik gabe joan daitezen eta Ermuko biztanle guztiengana heldu daitezela».

Euskal Birusak Batzorde honetako partaideengana jo du jaien antolaketa eta egitarauaren berri jaso asmoz. Esteban da Txarangen Jai Batzordeak daukan ordezkaria.

D: Ze lan mota egiten du Txaranga Batzordeak?

E: Gure asmoa egitaraua ahalik eta zabalena izatea da, kalitatea baztertzen ez dugularik. Dena dela sarritan ez dugu lortzen herritar guztien poztasuna. Irailan jaiei ebaluaketa egiten dugu, nola joan diren, zeintzu izan diren ekintzarik arrakastatsuenak, eta abar... Urrian lanean hasteko, egutegi bat prestatzen dugu hurrengo urteko jaiak eztabaidatu eta gure artean harremanetan jarraitzeko helburuarekin. Aurten urte osoan zehar hainbat ekintza antolatzea pentsatu genuen, lhauterietan eta Eguberrian batez ere; hala ere, ez ginen elkarrekin ados jarri eta irailean gai hau berriz ere eztabaidatu dugu.

DROGETENITTURRI: Zer dela eta sortu zen Txaranga Batzordea?

ESTEBAN: Bere agerpena, lanari jarraipena emateko izan zen, urtean zehar harremanetan egonda jai egitarauaren inprobisazioak lekuri izan ez dezan. Egitarau honetan gau-pasak baztertuak izan dira eta txarangak elkartu egin gara batzordean arazo hau konpontzeko.



D: Aurten ezer berezirik proposatu duzue?

E: Bai, aurten musika jaialdia berreskuratzea pentsatu dugu. Printzipioz Potato eta Mak taldeak izango dira Ermuan. Presupuestoak direla eta, beti gabiltza demandetan, eta gure ustez beharrezkoak diren ekintza guztiak ez dira burutzen.

D: Zer moduz konpontzen zarete jaietako arduradun nagusia den Antonio Rivera zinegotziarekin?

E: Saiatzen gara erlazio zuzenak mantentzen. «Diplomazia» haundia dago, alditan guk etsi behar izaten dugu, eta gutxienetan bera izaten da amore ematen duena. Ez dago borondate onik, eta benetan penagarria da kezka bakarra dirua izatea. Honen ondorioz Jai Batzordea «Merkatarien Bilerak» bihurtzen da, «ea nork gehiago etara». Proposamen azoka da, eta honek ez du egitaraua aberasten, ia ezinezkoa bihurtzen zaigu proposamen berririk sortzea, presupuesto falta dago-eta.

D: Kodrilen artean, zenbatek hartu du parte aurtengo jokuetan?

E: Hogeitamabik. Urtetik urtera jokuak berriro saiatzen gara. Aurten adibidez honako hauek sartu dira: ladrilu lasterketa, txaranga jantzi zaitzez, zaku lasterketa eta jatorrizko bekatua. Gure asmoa betiko jokuak eta berriak txandakatzea da, eta horretan gabiltza.

D: Eta aurkezpenean, zenbat txaranga egongo da?

Jokuetan egongo diren hogeitamabi horiek eta azkenean agertzen diren besteak. Gustatuko litzaiguke beste urteetan bezain girotsua izatea eta jendea «topera» ibiltzea.

D: Eta euskarak ba du lekuri jaietan?

E: Ahalegintzen gara mikrofonoetan euskaldunak jartzen, baina esan behar da inoiz despistatzen garela. Saiatzen gara baita, euskarak bere presentzia beste ekintzetan izatea. Baliteke egiten duguna gutxi izatea, baina ahal dugun guztia da.

D: Zer izango da egitarauaren gauzarik hoberena?

E: Aurkezpena eta agurra alde batera utziz, aurten Ermuan Mick Jagger, Tina Turner, Loquillo, Olé-Olé, Concha Velasco, Montserrat Caballé eta ihaz bezala Trederi Mercuri izango ditugu. Aurkezpenak Joaquín Arozamena eta Jesús Hermidaren esku egongo dira, euskaraz izango direla, noski. Guzti hau hilak 14an, Larunbata. Jai zinegotziak ere sorpresa ederra prestatu digu azken momentuan, Espartaco, Curro Romero, Rafael de Paula eta beraien nobileruak Okinzuriko zezenplazarako kontratatu ditu-eta.

D: Jai hauen aurrean aholku berezirik baduzu?

E: Bai, amodioz betetako gauak hobeto egon araziko digula eta alkolez pasatzen lagundu.

D: Eta datorren ikasturteari begira proposamenak?

E: Baita ere, Irailetik aurrera jende gehiago ager dadila Jai Batzordean bileretan. Proposamen guztien aurrean irekirik gara, eta eztabaida haundiagoa den neurrian, egitarau hobeagoa lortuko dugu. Era honetan 90/91 urtaldian zehar beste edozein ekintza kulturala ere prestatu ahal izango dugu.